



## EUSKARA SAILAREN PROPOSAMENA

### GAIA:

Baztango Udalak 2020. urtean Baztanen hizkuntza-paisaia euskaratzeko diru-laguntzak emateko deialdia.

### AZALPENA:

Deialdian zehazturiko epea akiturik, hauek dira Baztango Udaletxean behar bezala aurkeztu diren eskaerak eta horiek azterturik, bakoitzari onartzea proposatzen den diru-laguntza ehunekoa eta zenbatekoa:

NAN zk./IFK	Gastua	Laguntza %	Laguntza proposamena
44xxxx21T	1444,74	%50	500€
	849,42€	%25	212,35€
72xxxx75Q	697,01	%50	348,50€

\*\* Diru-laguntza jasotzeko aurkezturiko elementuek sortutako gastuaren ehuneko jakin bat jasoko dute, baina gehinezko diru-kopuru batek mugaturik.

44xxxx21T-ren eskaerak zazpi elementu ditu. Kanpoko errotuluak dira denak. Horietatik hiru euskara hutsean daude eta %50eko laguntza jasoko du (500€-ko muga duena), hau da, euskara hutsean idatzitako errotulazio elementuei dagokiena. Bertze lau errotuluak hainbat hizkuntzetan daude (euskaraz, gazteleraz eta frantzesez), euskara lehenetsiz, eta %25eko laguntza jasoko du (250€-ko muga duena), euskaraz eta erdaraz idatzitako errotulazio elementuei dagokiona.

72xxxx75Q-ren eskaerak bi elementu ditu. Kanpoko errotulua eta barruko errotulua. %50eko laguntza jasoko du (500€-ko muga duena), hau da, euskara hutsean idatzitako errotulazio elementuei dagokiena (500€-ko muga duena).

Deialdiaren 8. atalaren arabera, deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzan eman dion organoak hartuko du.

### HORTAZ, PROPOSATU NAHI DU:

Diru banaketaren proposamena onartzea.

**Oianko Garde Jaunsaras**  
Baztango Udaleko Euskara zinegotzia

Baztanen, 2020ko urriaren 19an.